

Elections municipales—9 et 16 mars 2008



**Donamartiri,
elgarrekin aitzina**

Ensemble vers l'avant

AUZAPEZAREN HITZA :

DONAMARTIRITAR maiteak,

Heldu den martxoaren 9an eta 16an, izanen ditugu orotan bezala HERRIKO BOZAK,

Lehen lehenik nahi zaituztet denak zinez eskertu egin dautazuen konfiantzaz.

Eskertzen ditut ere bihotzetik hautetsi guziak, egin dituzten lanez bai eta ere Herriko Etxeko langileak, orok pharte hartzen dute bakotxak bere lekian, Donamartiriko bizian.

Ezkertzen ditut ere herriko batasunetan lan egiten duten gizon ala emazte, gazte eta berdin adin ederreko langile suharrak, ahatzi gabe nehorik deus galdegin gabe lan egiten duzuenak denen onetan. Orori bihotzetik milesker.

Egun, enetzat berriz zueri buruz itzultzeko tenorea jina da. Multxo berritu batekin, zuen konfientxiaren galdez heldu nizazue.

Badugu orain hanitz lan egiteko, bethi atheratzen ere. Gogoan ditugun premiatsuenetarik zombait aiphatzeko, hior kausitzen ditugu HERRIKO ETXE BERRIA, ingurumena, gazten aloiatzea, lur saltzetan plomu baten hatxemaitea, ahatzi gabe Donamartirin laborariak bizi direla beren lurren mozkinetarik, berdin orhoituz ofizialez, komertsantez eta ditugun enpresez.

Egin ahala eginen ditugu, bakotxa bere lekian uros izan dadin, partikularzki jende zaharrek beren etxetan.

Horra hior, ondoko hilabeteetan eginen ditugun zombait hautuen xiriak landatiak,

Sail horier buruz ariko gira denak, hautagai berri eta zahar denak elgarrek, zuen sustengua lagun.

*GUK ZUEKIN
ZUEK GUREKIN
DENEK ELGARREKIN
DEZAGUN LAN EGIN.*



PIERRE HAÏÇAGUERRÉ

2001 – 2008 EPEALDIRAKO BILANA

⇒ INBERTSIOAK : 10 ekintza gauzatuak

	Dirulaguntzak	Herriko etxearen ekarpena	Maileguak	Inbertsioak - orotara
Bideak	158 958,14	98 871,86		257 830
Materialaren erosketa		16 519,40		16 519,40
Elektrizitatea - sarearen hedatzea eta azkartzea		8 226,05		8 226,05
Eskola - apartamenduak	37 826	71 205,17	32 000	141 031,17
Apezetxea - teilatua	11 132,44	9 108,37		20 240,81
Behasi - autobus geltokia	3 361,36	2 894,64		6 256
Eskola - kanpoko jokoak		2 411,31		2 411,31
Herriko karta	hunkitzekoa	10 393		10 393
H. Etxea - Lur erosketa		37 684		37 684
Lurberritze		4 913		4 913
Orotara	211 277,94	262 226,80	32000	505 505

Diru-ekarpen mota ezberdinen banaketa – 2001-2008



Helburu berezi batek gidatu ditu hartuak izan diren hartuak : funtzionamenduko gastuak mugatu eta inbertsioak egin, herriko zergak hunkitu gabe.

⇒ Herriaren bilakaera

- Taulan bilduak dira : 2001-2007 epealdian onartuak izan diren eraikitze-permisa galderak, eta obrak hasteko adierazpen galderak ;
- 2001-2007 epealdian onartuak izan diren etxe berri baten eraikitze 17 permisa galderetarik, 14 proiektu bururatuak edo hasiak izan dira ; azken 3ak ez dira abiatuak izan oraingoz
- Arraberritzeko 6 galderetarik, 3 etxe zahar baten arraberritzeari lotuak ziren, beste 3ek etxe edo eraikin batean apartamenduak sortzea zuten helburu

	Orotarat
Etxe berria	17
Etxe baten arraberritzea	6
Laborantxazko eraikina	22
Ofiziale-eraikina	10
Beste	12

Ongi etorri bero bat luzatzen diegu azken urte horietan herrian plantatu diren famili berriei !

PROIEKTUAK, AITZINARAT JOATEKO

Herriko etxe berriaren eraikitze-proiektua bururatu

Azken hiru urteetan baztertuak izan diren diru-zamei esker, proiektu hau osoki bere gain har lezake Herriko Etxeak. Eraikin hau, Donamartiritarren zerbitzuko tresna egoki bat izateaz gain, Herriaren dinamikaren irudia izanen da.

Plaza hobekiago antolatu

Herriko etxe berriaren eraikitzearekin batean, Bil Etxea gela eta trinketaren antolaketa berriz ikusi beharko dira. Gogoetek bi puntu kontuan hartuko dituzte :

- Eraikin horien erabiltzaileen beharrei **erantzutea**,
- Bil Etxea eta trinketa **balorizatzea**, erabilpen hobeko bat xerkatuz.

Aldi berean, molde orokorrago batean, plazako antolaketa berriz ikus daiteke : beharrezko seguritatea hobetu, Elizabeherea aitzineko eremua berantolatu, itzaleko pausa-lekuak...

Herriarentzat lurrez jabetu

Eros liratekeen etxebizitzaren sortzeko lur erosketa proiektua, famili gazte berriak Herrian plantatzen laguntzeko eta Herrian egon nahi duten gazteei instalatzeko parada segurtatzeko. Azpimarratzekoa da azken urte hauetan herriaren jendetza ez dela emendatu.

Tokiko Lur Erabilpenerako Herri Erakundearen (TLEHE) laguntza eskatuko dugu.

Laborantxako eremuak babestu

Herriko aktibitate inportantenetarikoa den laborantza, gehien bat hazkuntzaren inguruan antolatua da. Gazte ainitz instalatu dira eta haien etxaldeak modernizatu egin dituzte, geroz eta zorrotzagoak diren baldintzak betetzeko. Kalitatezko ekoizpenak garatuak izan dira; sektore honen bizitasuna frogatuz.

Premiazko erronka : laborantxako lurren barreiatzeari kasu berezi bat ematea, laborantza bizikor bat atxikitze xedez eta ekonomia pastoral tradizionalerako modeloaren segida segurtatzea, modelo horrek paisaien edertasuna eta kalitatea hein handi batean segurtatzen duelarik.

Hari hunetarik, herriko karta sortua eta adostua izan da, aktibitate ezberdinen arteko oreka bat atxikitzea beilatuz (komertziantek, artesauak, entpresak, bizitze-lekuak)

Euskararen erabileraren garatzeko ekintzak sustatu eta bultzatu

Herritarren %70a baino gehiago euskalduna da. Euskararen presentzia eguneroko bizian nabarmena da, eta biziki inportantea zaku euskararen alde egiten diren indarrak sustengatzea. Horregatik, gure taldea engaiatzen da, ekoiztuko dituen dokumentu guzietan euskararen presentzia segurtatzea.

Bestalde, engaiatzen gira **euskara teknikari** postu baten sortzearen proposamena bultzatzea Hazparneko Lurraldeko Herri Elkargoaren baitan.

Ekonomia sustengatu

Laborantza gure herriko ekonomia arloko aktibitate garatuena baldin bada ere, lanpostuak sortzen dituzten artesau eta turismo aktibitateak sustengatuko ditugu ere.

Donamartitarrei zuzendutako informazioa hobetu

Zerbitzuen antolaketa hobetzeaz gain, herriko etxe berria, herritarren galderei eraginkorrago ihardesteko **tresna** bat izanen da, batez ere komunikazio toki egokiago bat eskainiz: agiri ofizialak, ibilaldien abiatzea, jartzeko toki bat,...

Ber denboran, talde berriak teknologi berrien erabilera esperimintatzeko engaiamendua hartzen du (**internet gune** bat sortuz), helburua delarik herritarrei parada ematea Herriko Etxearen biziari lotuak diren dokumentuak esku artean ematea, Herriko komertzio, edota turismoari buruzko argitasunak zabaltzea, herritarren inizatibak balorizatzea...

Behasi auzoko su-defentsa tokiaren sortzea bururatu

Ur-biltzeko toki bat eraikitzen ari da Behasi auzoarentzat, su-arriskuei ihardesteko.

Hazparneko Lurraldeko Herri elkargoa

Herrien arteko politika baten garapena segitu eta bultzatu, bai ekonomia arloan (lan eremu berri batzuen sortzea), bai eta ere kultur arloan (lurralde mailako egiazko politika dinamiko bat sortuz).

Sortu denetik, SIVU Garbiki sindikatako kide da Donamartiri eta Herri Elkargoko hautetsiekin batera, ondarkinen bereizketa garatzearen alde lan egin du. Bide huntarik, ondarkindegia bat sortua izan da Heletan eta beste bat sortuko da Beskoitzen.

ZUEN SOSTENGUA GALDEGITEN DAUTZUEGU!
ZUEN SOSTENGUA GALDEGITEN DAUTZUEGU!

Donamartiri, elgarrekin aitzina



St Martin d'Arberoue,
ensemble vers l'avant

Hautagaien izenak (ezkerretik eskuinerat)

Noms des candidats (de gauche à droite) :

BARHENNE LAMBURE Béatrice

BORDARRAMPE Jean-Baptiste

IDIART Jean-Martin

GARAT René

HAICAGUERRE Pierre

CABROL OSPITALETTCHE Isabelle

HAICAGUERRE Claire

SALLABERRY Laurent

BETBEDER Christophe

ELISSALDE Nicolas

Eskas / Manque sur la photo : MIRANDE Jean-Baptiste

Nous comptons sur vous

